

HONDAKINEN BILKETA



Ekintza honen helburua hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaida bultzatzea da. Ziklo honetan hondakinen bilketan zentratuko gara. Horretarako ikasleek hondakinen bilketa eredu desberdinak ikertu eta alderatuko dituzte (lan hau burutzeko material osagarria banatuko zaie) honako irizpideei erreparatuz:



- Hondakinen bilketa eredu desberdinak (edukiontzia/atez-atekoa) ebaluatu honako alderdiak kontuan izanda: helburuak, antolakuntza: edukiontzien bidez egindako bilketa sistema desberdinak eta atez-ateko bilketa egiteko sistema desberdinak analizatu: eredu bakoitzaren pertsonal premiak, emaitzak, eraginkortasuna.
- Azpeitiko gaur egungo hondakinen bilketaren kudeaketa aztertu.
- Atez-ateko bilketa duten herrien (Usurbil, Hernani) esperientzia ezagutu.
- Gela bakoitzean taldeka azterketa eta eztabaidaren ondorioz txosten bat sortuko dute power-point formatuan. Interesgarria izan daiteke talde bakoitzak bere lanaren aurkezpena egitea gelan. Txostenaren atalak honako hauek izango dira:

- Bilketa eredu bakoitzaren abantailak eta desabantailak
- Ondorioak

Bukaeran lan guzti honen ondorio bateratuak udalari luzatuko zaizkio.